



**Esp.kodea:** 2021PHEL0001  
**Titularra:** OZMA

**Gaia:** 2021eko Lanbideren Enplegua  
Sustatzeko Programa: 4 garbitzaile

## ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

### 1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPEN A
Udal eraikinetako 4 garbitzaile	Udal eraikinen garbiketa bereziak egiteko lan taldea Covid-19ren ondorioz sorturiko garbiketa beharrei erantzuteko.	% 100	5 hil.

### 2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaien baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile moduan izena emanda dauden pertsona langabeak izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu 2019ko edo 2020ko deialdietan kontratatuta izan diren pertsonak, hautagai libreak ez badaude behintzat. Baldintza hau Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta informatuko du.
- Lanbide enplegua sustatzeko deitutako laguntza deialdiko baldintzak betetzea (EHAA 2021/06/30). Horren arabera, hautagaiak kolektibo hauetako batekoak izan behar dira:
  - 35 urtetik beherakoak.
  - 45 urtetik gorakoak.
  - Luzaroko langabeak.
  - Gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak.

### 3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera

### 4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaien egiaztatutako merituak baloratuz.

### 5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

**Epaimahaiburua:**

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

**Epaimahaikideak:**

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.



**Esp.kodea:** 2021PHEL0001  
**Titularra:** OZMA

**Gaia:** 2021eko Lanbideren Enplegua  
Sustatzeko Programa: 4 garbitzaile

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.

**Idazkaria:**

- Udal funtzionario bat.

## 6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
  - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
  - Tel.: 943 252000
  - [baz@arrasate.eus](mailto:baz@arrasate.eus)

## 7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak:**
  - Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
  - Emakumea izatea: 10 puntu.
  - Lan eskarmentua: garbitzaile lanetan egindako hilabete oso bakoitzeko puntu 1, gehienez 10 puntu. Lanaldi partzialean egindako lanak jardunaldi osotzat joko dira.
  - Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuraduna izatea: 10 puntu.
  - 55 urtetik gorakoa izatea: 10 puntu
  - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak**
  - *Teoriko-praktikoa*:: lanpostuaren funtzioen jakintzari buruz: 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 atera behar da aurrera egiteko.
- **Hautaketa:**
  - Puntuazioaren araberako hautagaien zerrenda osatuta, lehenik eta behin, honako kupo hauek beteko dira hurrenez hurren:
    1. 55 urtetik gorakoak: hautagai bat.
    2. Emakumeak: 2 hautagai.
    3. Diru sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuradunak: 2 hautagai.